


UDAL HAUTESKUNDEAK 2007: ZEIN DA ALDERDIEN ESKAINTZA?

·Zuek bai jakin!: Alberto Mazmela ·Erreportajea: Benta Zaharreko mutiko alaiak ·Izardi patsetan: Aitor Chico eta Iñaki Larrea Flandesen ·Boteprontoan: Txema Iriberry

Herri Aldizkaria Otamotz

2007ko
apirila
126. alea



Goierri bus



Tel. 943 72 52 50 • Fax 943 72 58 70 • E-mail: goierribus@euskalnet.net
www.goierribus.com



SUTAN

Tel./Faxa: 943 720 638


Mug.: 665 737 302

Mugitegi industrialdea, B bidea 6 behea

20700 URRETXU

www.sutan.biz

e-posta: sutan@sutan.biz



TXIMINIAK:

Burdin galdatuzkoak, gasezkoak, elektrikoak (ez dute behar ez ke irteera, ez obrarik), sukalde klasikoak.

ESTALDURAK:

Harlanduak, simulazioa poliuretanoan (egurrezko habeak, adreiluak, arbela).

Argitaratzailea: Zintzo Mintzo. Labeaga 12, Urretxu. 943 03 64 74 **Koordinatzailea:** Asier Zaldua **Erredakzio kontseilua:** Alex Areizaga, Aintzane Arizmendiarieta, Jonmikel Intsausti, Sebas Iturriotz, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Igor Susaeta eta Asier Zaldua **Diseinua:** Ane Miren Ormazabal **Euskara zuzentzailea:** Marian Toledo **Azaleko argazkia:** Gotzon Aranburu **Banaketa:** Aintzane Arizmendiarieta **Publizitatea:** Iker Telletxea - 647 319 757 **Inprimategia:** GOI DESIGN **Lege Gordailua:** SS-742/96 **ISSN:** 1136-7318 **Tirada:** 1.500 ale **Otamotz** aldizkariak ez du bere gain hartzen adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik

aurkibidea

- 04 Hilabete honetako gaia**
Udal hauteskundeak 2007: zein da alderdien eskaintza?
- 10 Komikia / Egurra partitzen**
- 11 Zenbat buru, hainbat aburu**
Zer eskatuko zenieke udalei datozen lau urteetarako?
- 12 Bota bertsoa! / Iritziz iritzi**
- 13 Argazki zaharra**
- 16 Klik eta klik**
Iñaki Lizarralde
- 19 Gure gomendioa**
- 20 Zuek bai jakin!**
Alberto Mazmela
- 23 Erreportajea**
Benta Zaharreko mutiko alaiak: musikari ibiltariak
- 26 Izerdi patsetan**
Aitor Chico eta Iñaki Lizarazu txirrindularien paradisuan
- 28 Gure aholkuak**
- 29 Literatura**
- 30 Boteprontoan**
Txema Iriberry



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamentuak, Urretxuko Udalak eta Zumarragako Udalak emandako diru laguntza jaso du.

Zer eskaintzen dute alderdiek?

Alderdi politikoak maiatzaren 27an izango diren Udal eta Foru hauteskundeetarako prest daude jada. Hautagaiak ezagutzen dira eta aurki kanpaina hasiko da. Otamotz gure bi herriotan hauteskundeetara aurkeztuko diren alderdien datozen lau urteetarako eskaintza biltzen saiatu da. Horretarako, behealdeko galderak helarazi dizkiegu.

-ESKUALDEAREN (GOIERRI GARAIA) GARAPENA

Enpresa- eta industria-egitura indartzeko zein ekintza eramango dituzue aurrera?

-ETXEBIZITZAK

Legez onartutakoaz gain (bigarren etxebizitza grabatzea...) beste neurririk aurreikusten al duzue arazoari aurre egiteko?

-EUSKARA

Udalek Euskara biziberritzeko Plana onartu zuten eta aurrerapausoak eman dira. Hala ere, Urretxu-Zumarragako Kale Erabileraren azken neurketan euskararen

erabilera ez dela igo ageri da. Zein ekintza proposatzen dituzue euskararen erabilera gora egin dezan?

-UDALEN ARTEKO HARREMANAK

Geltokiko bide ixtea, Areizaga-Kalebarren plazaren konponketa,... horrelakoak gerta ez daitezen zer proposatzen duzue?

-INGURUGIROA

Kontsumoa gutxitzeko (zabor kopurua jaitsi, ur eta energia gutxiago kontsumitu) kanpainarik bai?

Zaborra tratatzeko eta gutxitzeko zein neurri proposatzen dituzue? Errausketa

plantak alternatibarik ba al du? Zein? Nola bideratu?

-KAFFE ANTZOKIA

Herritar talde batek euskararen erabilera bultzatu eta kulturgintza biziberritzeko Kafe Antzokiaren proiektua proposatu du. Nola ikusten duzue? Proiektua bultzatzeko asmorik ba al duzue?

-ONGIZATEA

Etorkinen integrazioa eman dadin zein urrats emango duzue Udaletik?

Gizartea gero eta zaharragoa da eta gero eta txiro gehiago dago, zer egingo duzue?

PP: “Alokairuko babes ofizialeko etxebizitzaren inguruan esfortzu handiagoa egin behar dugu”

Eskualdearen garapena: Enpresak, produktibitate iraunkor nahiz sozietate-zerbaren aldetik lehiakorragoak izan daitezen eragin, gure konpetentzia ingurura (Europa) egokituz.

Etxebizitzak: Alokairuko babes ofizialeko

etxebizitzaren inguruan esfortzu handiagoa egin behar dugu. Izan ere, etxebizitza erosteak egundoko ahalegin ekonomikoa eskatzen du eta alokairu sozialeko etxebizitza neurri polita litzateke gazteek lehen etxebizitza izan dezaten.

Euskera: Euskara, sarritan, liskar politikoaren ardatz bihurtzen da. Mila araudi eta plan eginda ere, gizarteak naturaltasunez ez badu euskararen erabilera onartzen, jai daukagu. Kuotak eta profilak jarri beharrean, hobe genuke euskararekiko jendearen

maitasuna bultzatuko bagenu. Lortu behar dugu jendea eroso sentitzea euskaraz hitz egiten. Bide hori luzea bezain korapilatsua da eta gizarteak ez du begi onez ikusten politikook gatazkan aritzea gai hau dela eta.

Udalen arteko harremanak: Garbi dagoena da diferentzia hauen ondorioak jasaten dituztenak bi herriotako bizilagunak direla. Zentzuz jokatu behar da, bi herriotako biztanleen interesetan arreta jarri eta ez mantendu jarrera aldaezinik.

Ingurugiroa: Alor honi dagokionez, Urak

eta Saneamenduko batzorde buru izan naizen aldetik (Valeriano Martínez), aurreko legealdian bultzatutakoa aipatu nahi nuke. Batzordeak proposatuta, edateko ur-hornidura eta udal estolderia zerbitzu publikoa kontratatzeke deialdia egitea onartu zuen Osoko Bilkurak. Eta horren ondorioz Zumarragak egun edateko ur-hornidura eta udal estolderia zerbitzu erabat berritua du, zerbitzu bera hobetu duena eta gaur egungo egoerara egokitutako berrikuntzaz osatua.

Alderdi politiko guztiok Gipuzkoako Hiri

Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorrari (GHHKPO) emandako babesak gaur egun ere berresten dugu. Bai herri baita probintzia mailan ere.

Ongizatea: Ezinbestekoa da dagokion Administrazioekin elkar lanean aritzea, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritza, eta iritsi berriak diren etorkinei nahiz pobretasunean eta menpekotasunean bizi diren pertsonen lehenbailehen erantzun bat ematea ahalbidetuko duten ekintza-protokoloak eta errekurso ekonomikoak eskatuz.



PSE-EE: “Bi herriok garapen jasangarriaren aldeko eta klima aldaketaren aurkako borrokan aitzindariak izatea nahi dugu”

Eskualdearen garapena: Enpresa garapena funtsezkoa da eskualdearen garapenerako. Hori dela eta, Udalek eta enpresek hartu eman estua izan behar dute, deslokalizazioak saihesteko eta enpresen hazkunde bultzatzeko. Gainera, ekimen berrien eta gazteentzako lanpostuen sorrera erraztu behar da.

Etxebizitzak: Etxebizitza hutsak merkatu-atera eta hirigintzaren inguruko adostasuna lortu behar da, etxebizitza soziala bultzatuko duena. Alokairua bultzatu behar da bereziki, merkatuko salneurrian etxebizitzarik lortu ezin dutenentzat.

Euskara: Euskararen erabilerearen inguruko gizarte mailako ituna lortu behar da, erabilera modu gozoan bultzatuko duena:

dendetan, aisialdi guneeetan... Hiritarren inplikazioa lortu behar da, dakitenek erabili dezaten eta ez dakitenek ikasi.

Udalen arteko harremanak: Bi herrien arteko harreman ona eta elkarlan zintzoa nahi dugu. Herritarrei begira politika egiteko modu bakarra ezagutzen dugu: atsedenek gabeko eztabaida.

Ingurugiroa: Kontsumo arduratsua lortzeko kontzientziazioa ezinbestekoa da. Kutsadura eta ingurugiroaren aurkako erasoak zein kaltegarriak diren jakinarazi behar da. Udalak ere klima aldaketaren aurka borrokatu behar dira. Gure helburua bi herriok garapen jasangarriaren aldeko eta klima aldaketaren aurkako borrokan aitzindariak izatea da. Errausketa erabili

aurretik, zaborrak sailkatu behar dira eta tratamendu alternatibo guztiak agortu.

Kafe antzokia: Udaletxera heltzen diren proposamen guztiak zorrotzaz aztertu behar dira. Udaletxeko ateak ireki behar dira eta herritarren partaidetza erraztu. Hala, egitasmoa begi onez ikusten dugu eta aztertzea komeni da.

Ongizatea: Integrazioa lortzeko modurik onena, lan egiteko aukera eskaintzea da. Udalek are eta ahalegin handiagoa egin behar dute gizarte politikan. Enplegu programekin ahalegin berezia egin behar dute, Jaurlaritzarekin elkarlanean, lanpostuak sortzeko. Ez bakarrik etorkinentzat, gizartetik at gelditzeko zorian direnentzat ere lanpostuak sortu behar dira.

EA: “Bostgarren kontenedorea ezarriz gero, zaborren erdia bakarrik deuseztatu beharko da”

Eskualdearen garapena: Enpresen jarduera sustatzeko eta eskualdetik joan ez daitezen, ekintzak garatu behar dira. Instituzioetatik erraztasunak eskaini behar dira bertan dauden enpresak geratu eta berriak kokatzeko. Horretarako gune berriak ere sortu beharko dira. Urretxun onartu berri diren Arau Subsidiarioek adibidez, zoru industrialak garatzeko bi aukera uzten ditu. Alde batetik, Irimo izeneko gunea eta, bestetik, 100.000 metro karratu baino gehiagoko eremua Deskarga bidean. Era berean, Uggasa bidez ekintzaileei laguntza eskainiko zaie, etengabeko hezkuntzan sakonduko dugu eta, bestetik, interesgarria litzateke Urola Lanbide Eskolan adar ezberdinak ezartzea prestakuntzaren mesederako.

Etxebizitzak: 440 etxebizitza eraikitzeko aukera eskaintzen dute Urretxun Arau berriek. Horietatik, erdia babes ofizialekoak izango dira. Izan ere, etxebizitzaren prezioak ez daitezten igo hauen eskaintza berria beharrezkoa baita. Era berean, Gune Historikoaren berrikuntzarekin jarraituko dugu, ingurunea errespetatuko dugu eta alokairua sustatuko dugu. Zumarragan berriz, etxebizitza gutxi egin dira azken urteetan, baina denbora laburrean bi eremu garrantzitsu garatuko dira: Eitza eta Artiz Auzoa. Etxebizitza anitz egin ahal dira bertan eta gure lehentasuna, Eusko Jaurilaritzarekin hitzartuta, ahalik eta etxebizitza gehien alokairuan izatea litzateke. Horretaz gain, Udalak prezio tasatuko etxebizitzak sustatu behar dituela uste dugu.

Euskara: EAK kudeatu du azken legealdian euskararen sustapena bai Urretxun eta baita Zumarragan ere. Urrats garrantzitsuak eta sendoak eman dira, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren garapenak fruituak eman ditu euskara gizarteko arlo gehienetara hurbilduz eta, besteak beste, baliabideak ia bikoiztu ditugu. Plangintza jarraituz gero eta euskarazko eskaintza areagotzen bada, batez ere gazteen artean, erabilerak gora egingo du. Horretaz gain, euskaldun bakoitzak hizkuntzarekiko duen konpromisoa berritu beharko lukeela uste dugu.

Udalen arteko harremanak: Alde batetik norberak jabetu behar du ez dela bestea baino gehiago. Herritarrek elkarlana eskatzen dute eta errespetua ez ezik komunikazioa ere ezinbestekoa da. Hala ere, baten batek zalaparta nahiago badu komeni zaiolakoan ez gaitu parean harra-patuko. Bi herrietako harreman sendoak nahi ditugu, herriak horrela eskatu eta merezi duelako.

Ingurugiroa: Azken legealdian Tokiko Agenda 21 garatu da. Bide horretatik jarraitu behar dugu eta edozein erabaki hartzerakoan garapen iraunkorrari lehentasuna eman beharko litzaioke.

Hondakinen sorreraren prebentzioa sustatuko dugu, Aldundiarekin bat eginez sensibilizazio kanpainak martxan jartzekoan. Geroz eta hondakin gutxiago sortu, ahalik eta gehiena birziklatu, bostgarren kontenedorea ezarri kalitatezko konposta egin ahal izateko. Hori eginez gero, zaborren erdia soilik deuseztatu beharko da.

Kafe antzokia: Zumarraga nahiz Urretxun kultur baliabide ugari eraiki dira. Horrelako inbertsio garrantzitsuari ekiteko herrietako kulturgintzaren diagnostikoa egin beharko litzateke aurretik eta, ondoren, proiektua gauzatuz gero, kudeaketa mota ere ondo zehaztu beharko litzateke. Kafe Antzokiaren ideia gauzatzen hasi ahal izateko, bi herrietako kultur batzorde bateratu eta ireki batek lanean hasi beharko lukeela pentsatzen dugu.

Ongizatea: Etorkin "etiketa" kentzen saiatu behar dugu; udaletako gizarte zerbitzuek garatzen duten sarea eskaintzen zaio orori eta hau ezagutarazten saiatu behar dugu. Bestetik, lan munduan sartzea ezinbestekoa da. Horrek gizarteratzea errazten du. Era berean, aberatsa da beste kulturekin harremanak trukatzeko, eta ez dugu ahaztu behar, gure herriak ere garai batean beste lurralde batzuetara joan behar izan zuela ogi bila. Ikasle gazteei zuzendutako euskarazko errefortzu saioak ere eskaini ditugu gure hizkuntza ezagutarazteko eta oso esperientzia baliagarriak sortatu dira. Gizarteko arlo guztietan eman behar dira urratsak integrazioa erabatekoa izan dadin.

Bestetik, ez dugu uste gero eta txiro gehiago dagoenik; enplegua gizarteratzeko tresna egokiena da eta gaur egun egoera onean gaude, "paro teknikoa" deritzon zenbakitan gaude gure eskualdean. Halare, badaude egoera larrian dauden pertsonak eta instituzioetatik prestakuntza sozialak eskaini behar zaizkie.

EAJ: “Udalek lurzorua erostearen aldekoak gara, babes sozialeko etxebizitzak egiteko”

Eskualdearen garapena: Eskualdeko sinergiak aprobetxatuz, udal talde politiko-en, instituzioen eta agente ekonomikoen arteko Urola Garaiko Garapen Ekonomiko Jasangarrirako Ituna proposatzen dugu. Enpresa, merkataritza eta formazioa biltzen dituzten eskualdeko entitate publiko-en harmonizazio eta koordinazioa, berrikuntza eta enpresa ekimen arloan indar berezia jarritz. Jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren birsorkuntza eta sorkuntza. Gure eskualdetik pasatuko diren eta hain beharrezkoa dugun bultzada ekonomikoa ahalbideratuko duten bide-sare azpiegiturak egitearen aldekoak gara. Ditugunak hobetu eta kamioen garraiorako azpiegitura berriak egin.

Etxebizitzak: Udalak lurzorua erostearen aldekoak gara. Babes sozialeko etxebizitzak egin saltzeko eta alokatzeko, Udala bera sustatzaile delarik.

Euskara: Euskara biziberritze planaren bidez hurrengo legegaldian euskararen normalizazioa eta sustapena lortzeko beharrezkoak diren programak eta ekintzak proposatzen jarraituko ditugu. Beste batzuen artean, Udaletxearekin tramiteak euskaraz soilik egiteko posibilitatea bermatu eta indartu; Komertzio, ostalari eta enpresen eguneroko ihardunean euskararen erabilera lantzeko programak aurrera eraman; transmisio kanpainak indartu, euskara ezagutzen ez duten gurasoek seme alabekin euskaraz hitz egitea sustatu; euskarazko softwarearen erosketari laguntzak eman; euskarazko komunikabideei laguntzak bideratu; eta euskara bul-

tzatzen dituzten ekitaldien euskarri izan.

Udalen arteko harremanak: Bi herriak ukitzen dituen puntu guztiei elkarrekin erantzun. Arazo komun horiei erantzuteko bi udalen arteko batzordea sortu, trafikoa-ri, hezkuntzari, gizarte ongizateko zerbitzuei, partekatzen dugun erdiguneari, merkataritzari, kultura eta kirol arloari irtenbideak ematen saiatuko dena.

Herriaren alde eta ez bere irudia saltzeko lan egingo duten hautagaiak aurkeztu, sinergia lortuko dutenak.

Ingurugiroa: Jasangarritasun aktiboan eta pro-aktiboan sinesten dugu: garapen jasangarriaren aldeko ekintzaile sutsuak gara. Momentuan momentuko ekintzek ez dute balio baldin eta jarraipenik, iraupenik ez badute. Ingurumena defendatzen eta babesten leporaino sartu behar dugu. Hondakinak ez sortzeko edo gutxiago sortzeko prebentzioaren aldeko apustua egin nahi dugu: hondakin onena, sortzen ez dena baita. Gipuzkoako Hondakinak Kudeatzeko Planarekin batera doazen ekintzen aldekoak gara: prebentzioa sortu ez daitezen, bereizi, birziklatu eta berreraibili. Konpostajea eta hondakinen balorazioa bultzatu.

Agenda 21 foroak indartu eta uraren eta energiaren kontsumoa gutxitzeko kontzientziazio kanpaina gehiago egin. Ur ez edangarria erabili udalak eskaintzen dituen zerbitzuetan.

Kafe Antzokia: Antzerako toki bat proposatu genuen, kontzertuetarako-eta, kultur etxe berrian. Dinamizatzeke, batzorde bat sortzea nahi genuen. Egitasmo horri eus-

ten diogu oraindik.

Kulturaren arloan gure ideiak hauek dira: Urretxu eta Zumarragaren arteko elkarlanean oinarritutako kultur eskaintza zabala hobetu. Kultura anitza bultzatu. Eragile eta talde kulturalen sarea indartu. Kultur eskaintza adostua zabaldu. Sormena eta sorkuntza bultzatu. Erreminta berriak denen esku jarri. Gure herria sortzaileen-tzat erakargarria egin.

Ongizatea: Gure herrietan etorkinen integrazioa errazteko helburuarekin, eskualde mailan etorkinen inguruko zerbitzu bategatik egingo dugu lan. Politika integratzaileak bultzatu, eta eskualde mailako etorkinen inguruko sentsibilizazioan sakontzeko, programazio, ekintza, aholkularitza eta materia desberdina sortuko lukeen inmigrazio plana bultzatuko dugu.

Zumarragan eraikiko den adinekoen egoitzak gaur egun dituen plaza kopurua ia bikoiztuko du. Adinekoentzat baliabide berri bat eraikiko da, tuteratzepeko apartamentuak. Gainera, Zumarragan, eraikiko den eguneko egoitzarekin gaur egun Urretxun eskaintzen den zerbitzua osatu eta gehituko dugu. Etxez etxeko laguntza ere gehitu egingo dugu. Gainera, gaur egungo Faustino Orbegozo zahar egoitzan baliabide soziosanitario bat sortzea proposatzen degu.

Arazo sozialak dituzten pertsonen gizarteratzea lortzeko programak bultzatuko ditugu, gizarteratze hitzarmenak, lan orientabide osoa, formakuntza eta auzolana beste batzuen tartean.

EB-Aralar: “Gerontologia zentro berriarekin pausu bat eman da, baina Aldunditik bertatik kudeatu beharko litzateke”

Eskualdearen garapena: Eskualde mailan, industrialde berri baten sorrera ezinbestekoa da. Aurreikusitako tokia, Matxain ingurua, zuzena iruditzen zaigu. Dena den, prozesua ahalik eta gehien azkartu behar da, azken urteotan industriari eskualdetik alde egin baitu. Urretxuri dagokionez, Irimo inguruaren suspertzea ezinbestekoa da. Lurra kalifikatzearekin ez da nahikoa, industria politika aktiboa garatu behar da.

Etxebizitza: Hiru proposamen ditugu: etxebizitza hutsen IBl-a %100 grabatzea, babes ofizialeko etxebizitza guztiak alokairuzkoak izatea eta Eusko Jaurlaritzarekin hitzarmena sinatzea Bizigune programa (etxebizitza hutsak alokairuan jartzea helburu duena) abian jartzeko.

Euskara: Biziberritze Planarekin jarraitu nahi dugu, oso tresna garrantzitsua baita euskararen garapenerako. Lehen hezkuntzan D eredia garatuta dago, eta udal euskaltegi bat daukagu helduen euskalduntze prozesuaren papera betetzen duena. Hala ere, duela gutxi egindako neurketaren arabera gazteak, adin batera heltzen direnean, gaztelerara pasatzen dira euren elkarriketetan.

Guk euskarazko programazio kultural erakargarria egitea proposatzen dugu, eta noski, orain arte izan diren euskara politikekin jarraitzea. Gure herrien errealitatea kontuan eduki behar dugu: euskararen normalizazioak denbora behar du, ezin dira gauzak derrigortu.

Udalen arteko harremanak: Bi herrien-

gan eragina duten hirigintza eta trafiko gaiak batzorde komun batean aztertu behar direla uste dugu. Bertan bi udaletako ordezkariak parte hartu behar dute. Ezin dugu kontu hau bi alkateen esku utzi. Abian den trafiko azterketaren emaitzak kontuan hartzea nahi dugu.

Ingurugiroa: Sentsibilizazio kanpainak hasi aurretik, udalok eredu garri azaldu behar dugula uste dugu. Argiteria publikoan fluxu murriztaileak eta eraikin berri guztietan eguzki plakak jartzea proposatzen dugu. Baita dagoeneko eraikita daudenean ere, pixkanaka. Gabonetako argiak egun horietan bakarrik piztea nahi dugu. Zaborrari dagokionez, poto, beira eta paper edukiontzi gehiago behar dira. Izan ere, zenbaitek ez du oraindik zaborra bereizten edukiontziak etxetik urrun dituelako. Dena den, bilketa Sasieta eskua dago. Estatutuen aldaketaren ondorioz, udalok ez dugu inongo kompetentziarik eta gu horren kontra azaldu ginen.

Hiru neurri nagusi: murrizketa, berrerabilera eta birziklatzea. Sortzen dugun zaborraren murrizketa. Erosketak egitean materia ez-organiko gutxiago etxeratu behar da (plastikoa, bricks, ...). Berrerabil daitezkeen produktuak erosi. Etxetik bertatik hasi birziklatzea eta zaborraren bereizketa: organikoa, papera, beira, plastikoa eta gainerakoak, arropa eta pilak.

Zaborraren murrizketari konpostajea erantsiko diogu. Bestalde, badira bideak plastikoa eta baita metilenoa ere birziklatzeko. Errauste plantarekin aldeztu aurretik egindako lan guztia (murrizketa, berrera-

bilera eta birziklatzea) kolokan jartzen da. Izan ere errauste planta, zenbait eta erretekin gehiago erabili, orduan eta errentagari izango da. Hiri hondakin solidoen kudeaketa eredu honen atzean interes ekonomikoak baino ez daude eta horretaz gain ez dago garbi osasunaren kontrakoak diren ala ez.

Bestalde, berdeguneak sortzearen aldekoak gara.

Kafe Antzokia: Uste dugu kultur jarduera berpizteko baino gehiago, kultura kudeaketa beste eredu bat proposatzen ari direla, parte hartzailea eta irekia. Begi onez ikusten dugu, baina aldeztu aurretik herriko eragileek bat egin behar dute ideia honen inguruan, eta behin hori eginda, ditugun kultur eta gazteria mailako gabeziak batera (taldeek entsaioak egiteko lokalak, aisialdirako aste bukaerarako lokalak...) helduko genioke gaiari.

Badiola fabrika zaharrak aukera bat eskaintzen digu, kudeaketak publikoak izan behar duela kontuan hartuta.

Ongizatea: Lehen urratsa, inmigratio gaietan teknikari arituak izatea.

Udalari dagokio pertsona helduek bizi duina izan dezaten bermatzea. Gerontologia zentro berriarekin pausu bat eman da, baina kudeaketa pribatizatu izanarekin kezkatuta gaude, Aldunditik bertatik zuzenean kudeatu beharko litzateke, langileen lan eskubideak nahiz asistentzia hobek baino gehiago. Ziurtatu behar dugu zentro berrira doazen langileek aurrekoan zituzten lan baldintza berberak edo hobekak izatea.

Ezker Abertzalea: "Negoziazio bidea ireki nahi dugu Euskal Herriko korporazio industrial handiena den MCCrekin"

Eskualdearen garapena: Gure enpresen papera urte gutxitan ikaragarri aldatuz doa globalizazioaren eraginez. Epe ertainera gure herriko enpresa handienaren etorkizunak kezkatzen gaitu: deslokalizazioak, balizko hirigintza "pelotazo" gozoa....

Garapenerako bideak:

Langile eta lanpostuen defentsa aktiboa.

Zoru industrial helburu espekulatuzaileen arabera erabiltzea saihestu.

Estrategikoki negoziazio bidea ireki Euskal Herriko korporazio industrial handiena den MCCrekin.

Merkataritza txikiaren defentsa, azalera handiko merkatal zentroi bidea itxiz.

Nekazaritza eta abeltzaintzari bultzada eman, kalitatezko produktuen ekoizpena suspertuz eta sare komertzial propioak landuz.

Etxebizitzak: Herriotako agintariak udal-tatik ezer gutxi egin daitekeela sinestarazi nahi digute. Horrela udalek espekulazioaren sareei atek irekitzen dizkie.

Etxebizitza politikaren gestioa esku pribatuetatik, publikoetara pasa behar da.

Etxebizitza hutsen eta berrien alokairurako politikak sustatu behar dira.

Baxu eta lokalen ordenantza bultzatuko dugu. Udalak inbiliarren bitartekari lanak egitea, lurzoru publikoa eta eraikitzaile kooperatibak, gazteentzako modulu konpartituak...

Euskara: Euskara Biziberritzeko Plana oinarritzat hartuta, haur eta gazteengan fokalizatu nahi dugu eragin-esparrua. Gure herriotako gazteek eskola eta familiar jasotako ezagutza kalean erraz era-

biltzeko, lan hauek egin beharko lirateke: Gazteentzako erakargarriak diren euskara hutsezko kultur ekimenak antolatu udal zerbitzuekin, elkarteekin edota tabernariekin batera lan eginez.

Herriko ikus-entzunezko euskarazko komunikabideak bultzatu eta gazteentzako foro partehartzaileak bultzatu.

Euskara Biziberritzeko Planaren oinarri, asmo, helburu eta bitartekoak onak izanik ere, praktikan egitasmo hauek martxan jartzean dago gakoa.

Udalen arteko harremanak: Ondo konpontzera behartuta gaude eta galdera honek erantzun bakarra duela pentsatzen dugu. Bi herrien arteko harremanak berezkoak dira zenbait gaitan eta perspektiba bakarretik landu beharreko arlo estrategiko asko ditugu, hala nola: komunikabideak, mugikortasuna, trafikoa, kultura, euskara, arazo sozialak, ingurumena...

Ingurugiroa: "Intermodala" saldu digute, bizikleta-autobus-tren komunikazio gune bezala. Proiektu honek ez du oinarritzko sustapenik, bizikletak aparkatzeko leku bat bera ere ez daukagu.

Bizitzeko hiriak nahi ditugu.

Aparkalekuak, bidegorriak erregulatzea. AHT bezalako eredurik ez eta tren sare tradizionala indartzea eta hobetzea, herri barruko autobusak...

Hurrengo errauskailua non jarri pentsatzen ari dira, (negozioa eta pribatizazioa medio) guk eredu alternatiboak eta errealak proposatzen ditugu: etxebizitza energia aurreztaileak, eguzki panelak, zabo-

rren murrizketa, berrerabilpena, birziklatze integrala, konpostajea...

Kafe Antzokia: Kulturari eta konkretuki Kafe Antzokia bezalako proiektu bati balio estrategikoa ematen diogu, herrigintza dago jokoan, nolako herri eredia nahi dugun. Lan, lo eta asteburuetako aisialdi kontsumistara mugatzen den eredia edo herri bizia, euskalduna, gure kale, taberna eta antzokietan bizi dena. Ongi aztertu eta sakondu beharreko proiektua da, kultur eta euskal eragileen partetik indar eta lan asko eskatuko duena, baina erronkak merezi duela uste dugu.

Ongizatea: Etorkinen integrazioak, ondorengo urteetan garrantzi berezia hartuko du: Komunikazio ezaren arazoa gainditu beharra dago. Beraiekin kontaktuan ekimen zehatzak diseinatuko ditugu: kultura desberdinen ezagupenerako gune bat, euskara ikastaro espezifikoeekin jarraitu, kultura desberdinen festa egun bat...

Gaur egun ditugun hainbat gizarte zerbitzu indartu beharra ikusten dugu (etxetzeko zerbitzua, asistentzi sozialera bideratutako pisuak...).

Hirugarren adinari talde inaktiboaren etiketa kendu behar zaio eta parte hartze dinamikak aktibatu.


Eguneko zentroan eta erresidentzietan plaza gehiago sortu eta autonomia falta dutenei etxean arreata zerbitzuak eskaini. Alarguntza pentsioak eta batzuen erretiro pentsioak oso baxuak direlako, ematen den txirotasun ezkutuzko arazoei aurre egin, pentsio horiek igoz, zerbitzu egokiak emanez...



egurra partitzen

Jon Torner
Jon Ormazabal

Vencako hauteskundeak



Paper zuri honen aurrean bloketatuta nintzela, postariak, –gure etxera behintzat maitasun gutunik ezean fakturak eta bankuko paperak ekartzera baino etortzen ez den langile prestu horrek testurako gaia jarri didanean. Izan ere, gaurkoan sari batekin etorri baitzait Patri.

Zorionak Jon!!! Maiatzaren 27an inportantea izango haiz hire bizitzan lehen aldiz, ez baitzaik alferrik hire mahaiko presidentea izatea egokitu. Joder Jon, oraingo honetan sekula baino puztuago irtengo haiz kalera, zer eta presidente!!!

Hala ere, hasierako emozioa eta zirrara prozesatu ondoren, nire ama lantzean behin postari horrek berak ekartzen dizkion Vencako katalogoen aurrean bezalaxe geratu naiz. Izan ere, gure herriarentzat ikaragarritzko ofertak eskaintzen dizkiguten programa dizdiratsuen artean, tranpa duen saria sartu baitigu gure sukaldera.


Eta ez, tranpa ez dator eguraldi ona datorren

honetan, igande bat lau paretan artean pasatu beharragatik. Aspaldian Jesukristok atsedena hartzeko hartu zuen egun horretako alternatibak Realarekin sufritzea edo andregaiarekin pasiatzea dira gure koadrilan eta oso da posible ordu-rako Lotinarenak Bigarren Mailan egotea eta nik "Vuelta al pueblo" emateko adiskiderik ez izatea. Tranpak hauteskunde ustel batzuei sostengua ematean datza. Izan ere, katalogoan guretzat eta beste zumarragar askorentzat egokienak diren produktuak eta eskaintzak desagertzeko arriskuan daude eta ni beste lau urtetarako apartheid gaizatzen kolaboratzaile?

Lagunekin hizketan, "niri behintzat EHNA onartuko didak" edo "hala behintzat herritarren benetako botuak zeintzuk diren jakingo duk", kontsolazio sariak eskaini dizkidate. Tristeia duk benetan, autoa agindu eta txinosen bazarreko linterna eta ile lehortzailearekin konformatu beharra!!

Zer eskatuko zenieke udalei datozen lau urteetarako?

Zer behar dute herriok?



Gorka Mendia




Aparkalekuen kontua nahiko gaizki dago. Bestalde, etxebizitzekin irabazten duten dirua ez dezatela gero toki bera behin eta berriro konpontzen gastatu. Babes ofizialeko etxe gehiago egin ditzatela. Ez dakit nork irabaziko dituen hauteskundeak, baina horien aurretik ez ditzatela horrenbeste obra egin.

Josetxo Gonzalez



Zumarragan bizi naiz, baina trafikoaren arazoa orokorra da: auto asko pilatzen dira, aparkaleku gutxi dago... Ez dakit zer egin daitekeen hori konpontzeko, baina umeekin herrian zehar ibiltzea zaila da. Beste arazo asko ere badaude, noski...

Juan Jose Poblador



Kaleak obretan daude, baina gazteek ez dute alternatibarik. Egia esan, ez dute aisialdi gunerik. Garitoek eta hala-koek, arazoak eragiten dituzte. Garai batean askoz ere sozialagoa zen bizitza.

Yolanda Azanza




Autoarekin ibiltzen naiz eta aparkatzea ia ezinezkoa izaten da batzuetan. Bestalde, Grupo Santa Barbaratik gora dagoen etxera igotzeko eskailera tente batzuk daude eta errepide ondoan ez dago espaloirik. Hori dela eta, bertako bizilagunek arazoak dituzte.

Gaia: Nire begietatik

Doinua: Sorlekua utziz gero

Ander Gabirondo



Gizarterantza begira
zer ez dago ikusteko!
Gauzak ez dira aldatzen
nahiz milaka ezusteko.
Hauteskundeak gurean berriz
utopian amesteko,
orain lau urte mokoa itxi
berriz hegoak mozteko.

Eguneroko ogia
nahiz izan oso antzeko,
gauza berriak entzun nahi
beltz iluna argitzeko...
Baina bakarrik mintzatzen gera
ondokoari mintzeko,
Pake hitzaren jokoan gaude
baina gerran jostatzeko.

Dena ez da beltz-txuria
ez bedi inortxo sutu,
bizi gogoak inorrek
ezin dizkigu xahutu.
Etorkizuna guregan dago
ez bururikan makurtu,
aldapatsua danez bizitza
bateratuz daigun lautu.

iritziz iritzi

Aintzane Arizmendiarieta



Banatzaille baten abenturak

Hamaika ikusita nengoela uste nuen, baina badi-rudi ez dela horrela. Hitza banatzen hasi nintze-nean kexa asko egon ziren eta oraindik badaude: bizilagun batek besteari Hitza kentzen diolako, besteak beste. Hori dela eta, lana gehitu egin zait: hirutan tolestu beharrean, lau edo bost aldiz toles-ten dut; egunkaria postontzitik atera ez dezaten. Benetan harritzen nauen joera, azken urteotan gertatzen ari dena da. Behin, Otamotz banatzen ari nintzela, atari batean txirrina jo nuen, emaku-me bat igogailuan jaitsi zen, handik irten zen, begi-ratu ninduen, keinuak egin nizkion atea irekitzeko eskatuz eta bera, atea ireki gabe, igogailura buel-tatu zen. Han gelditu nintzen, ezin sinesturik, sekulako tonto aurpegiarekin.

Beste batean, jende askok jasotzen duen atari batean nengoela, denei txirrina jo nien eta, beti bezala, zain egon nintzen. Denbora pasatu zen eta atea inork ireki ez zuenez, aldizkarietara izenak jartzen hasi nintzen, atari azpitik sartzeko. Minutu batzuk pasatu nituen eta, bukatzen ari nintzenean, ataritik harpidedun bat irten zen. Hori aprobetxatu nuen atarian sartu eta aldizkaria postontzietan uzteko. Horretan ari nintzela beste harpidedun bat jaitsi zen. Kontua da etxe horretan bideokamerak daudela nork deitzen duen jakiteko.

Hau dena gertatu ondoren, etorkizunak zer ekarri-ko didan galdetzen diot neure buruari. Martxa honetan, banatzaileen memoriak idazteko moduan izango naiz.

1994

Soldadutzaren aurkako manifestazioa

Herriko talde antimilitaristak (UZTA), Joxemi Álvarez kartzelan zela, manifestazio hau antolatu zuen. Soldadutzaren aurkako borrokaren une gogorenak bizi ziren garai hartan. Joxi Etxeberriak eta Txentxik ere kartzela ezagutu zuten. Gero, intsumisoen aurkako bost minutuko epaiketak, armada profesionala, absoluzioak eta soldadutzaren amaiera etorri ziren. Argazkian ikus daitezkeen lagunak: Ito, Igor Burgos, Iñigo Aierbe, Guridi, Beni, Alon, Mari Carmen, Diego Bilbao, Jon Altzaga, Seno eta Lourdes, Juanlu Rodríguez, Valen, Andoni Mozo, Luis Mari Arribas, Aitor Sarasua, Aldama, Nemesio, Pitu anaiak, Padrón, Pika, Peña, Iñaki Álvarez, Aitzol Jauregi, Pablo Santos, longu, Igor Alustiza, Bixen eta Kristina, Andoni, Juanra, Gerar, Pérez, Garrafon, Juanjo Kerejeta, Sastre, Gorka Garmendia, Ayuso, Eugenio Izagirre, Feli, Pili, Gorka, Txus, Plágaro, Melita... Argazkilaria: Iñaki Lizarralde.



Liburuak erdi prezioan oparitzeko aukera

Zintzo-Mintzo euskaltzale elkarteak eta Aresti eta Urki liburu dendek Topagunea Euskara Elkarten Federazioaren Irakurri, gozatu eta oparitu egitasmoarekin bat egin dute. Euskal Herriko 14 herritan gauzatuko den proiektu honen helburua irakur zaletasuna sustatzea da.

Aipatutako liburu dendetan mota guztietako euskarazko 100 liburu egongo dira aukeran, kanpainarako espresuki jarritako apalategi batean. Ondoan, ordenagailu batek aukera emango du egitasmoaren web gunean (www.topagunea.org/irakurri) sartu eta liburu guztien inguruko informazioa jasotzeko. Liburuaren aukeraketa Patxi Zubizarreta idazleak egin du eta, hainbat irizpideren arabera: adin-tarte guztientzako liburuak egotea, genero ezberdinak, genero ikuspegia, nobedadeak eta klasikoak...

Parte hartu nahi dutenek, ehun liburu horietako bat aukeratu, maileguan hartu eta irakurtzeko aukera izango dute. Liburu itzulitakoan, bere inguruko iritzia jasotzeko fitxa sinple bat bete beharko da. Ondoren, irakurleak deskontu txartel jasoko du liburuaren bati oparitzeko. Txartel horrekin, irakurri berri duen liburuaren %25eko deskontuarekin erosi ahal izango da egitasmoan parte hartzen duten liburu



dendetan. Zintzo-Mintzoko bazkideek beste %25eko deskontua izango dutenez, erdi prezioan erosi ahal izango dute. Lagunaren helbidea eta oharra utziko da dendan bertan eta euskara elkarteak helaraziko dio hartzailari. Egitasmoa astelehenean hasi zen eta ekainaren 23an izango du amaiera.

Helburu nagusia irakur zaletasuna bultzatzea da, euskaraz irakurtzearen alde atsegina azpimarratzea, baina egitasmoak beste xede batzuk ere baditu: eragile publiko eta pribatuen elkarlana sus-



tatzea, horien arteko harreman sarea euskaraz hedatzea eta euskarazko liburuaren ekoizpena eta salmenta bultzatzea. Topagunea duela hamar urte sortu zen, eta Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako 90 euskara elkarteak osatzen dute. Elkarteon zein federazioaren berraren helburua euskararen erabilera sustatzea da. Horretarako, hainbat esparru lantzen dituzte, hala nola haur eta gazteen aisialdia, kultura, tokiko hedabideak, mintzapraktika, entitateak euskalduntzea, sentiberatzea...

UROLA

ELEKTRATRESNAK

☎ 943 72 02 15 - Faxe 943 72 52 91
Secundino Esnaola 2, ZUMARRAGA

ATA

HARATEGIA URDAITEGIA

☎ 943 72 00 61
Leturiatarren enparantza, 2
ZUMARRAGA

MURUA

Oinetako konponketa

Larruzko erropen konponketa.
Guraiza, labana... zorrozketak

Labeaga, 37 URRETXU
Golden plazoletan

centro óptico
JAVIER ARRATIBEL
optika

Ikusmenaren neurketa - Begietako
tentsioaren neurketa - Graduatutako
eta eguzkitarako betaurrekoak -
Lentilak - Termometroak eta
barometroak

Soraluze, 10 ZUMARRAGA
☎ 943 72 54 84

Egumendi, S. L.

Manganeso altzairuaren
aplikazio teknikoak

Ipeñarrieta, 48
☎ 943 72 33 01 - Fax: 943 72 43 41
Urretxu-Zumarraga
www.egumendi.com
egumendi@egumendi.com

Keros

Enmarkatzeak
Arte ederrak
Dekorazioa
Opariak

Labeaga, 35 Urretxu ☎ 943 72 41 60



Secundino Esnaola, 16 B
Tel: 943 72 16 63
ZUMARRAGA



SUTAN

Tximiniak, berogailuak, sukaldeak eta estaldurak
☎ 943 72 06 38 - 665 73 73 02 Fax: 943 72 06 38
Mugitegi poligonoa, B bidea, 6 bajua - URRETXU
www.sutan.biz - sutan@sutan.biz



Lorea

Pinturak - Etxeko apainketak
Lurrindenda - Jostailuak

☎ 943 72 41 90
☎ 615 75 33 28
Fax: 943 03 79 88

Legazpi, 5 - Zumarraga

PLAZAOLA

ITURGINTZA

Bide-Zar 5 ZUMARRAGA
943 72 13 70



Lanbiza

- Dietetika
- Estetika

Bidezar, 7 ☎ 943 72 36 52

Muntaia eta instalakuntza elektrikoak
Enpresa mantenua
Argiteria publikoa

Denda: Ipeñarrieta 4, ☎ 943 72 09 50
Tailerra: Mugitegi, ☎ 943 72 42 66
Mugikorra: 656 703 392

20700 URRETXU



natural optics

URRETXU

Lurdes Rodriguez Iparragirre, 1-Urretxu
Optiko-optometrista ☎ 943 72 59 68
urretxu@naturaloptics.com
www.naturaloptics.com

colors

arropa informala

Barrenkale
Urretxu
943 72 40 57



ALTZARIAK

MERKA-UROLA

Mugitegi, 17 Tel. eta faxe 943 72 58 28
URRETXU



TABERNA

JATETXEA

Piedad kalea, 14 ☎ 943 72 08 19
ZUMARRAGA



KABIA

JATETXEA

Legazpi, 5
☎ 943 72 62 74
ZUMARRAGA



BAPRI

ANIMALIADENDA

Txoriak, arrainak,
katuak, dordokak...

Urdaneta, 3 ☎ 943 72 61 13
ZUMARRAGA



Dermanki

Edergintza

Edergintza tratamenduak
Depilazioak
Solarium

Labeaga, 2 - URRETXU
☎ 943 72 25 13



belar zain

Belardenda, dieta eta errejimen elikadura
Mediku-homeopata kontsulta
Labeaga, 30 - Urretxu - ☎ 943 72 27 80

BIONA

ARozTEGIA

Altzariak neurritza

☎ 943 72 02 55
Erratzu, z/g URRETXU



ALEX-KIBOITAK

alejandro albisua

☎ 943 72 52 22
Soraluze, 6 - Zumarraga



AUZO LAGUN KOOP.

Zumarragako ospitalerako ondorengo pertsonala behar da:

SUKALDARI NAGUSI 1, Ref: SN1
SUKALDARI 1, Ref: S1
3 KAMARERA, Ref: KAM1

Kurrikulumak: rrhh.urb@auzolagun.com


klik eta klik



▼
Ale honetan Ordesan ateratako argazkiak ikus ditzakezue. Ezkerreko orrialdean, goian: Tucarroya aterpea eta arraila, Monte Perdido Lago Heladotik iluntzean eta Faja de las flores. Behean: lagun koadrila Cola de Caballon. Eskubiko orrialdean, goialdean: Ordesa Punta Acutatik. Behean: Monte Perdido eta Marbore lakua Astazutik, Taillon Astazutik, Roland arraila Serradetsetik eta Ordesa Lago Heladotik egunsentian.

Iñaki Lizarralde





Otamotz

Herri Aldizkaria

Orain duzu aukera, bat egin gurekin!

ZINTZO-MINTZO ELKARTEKO BAZKIDETZA:

- Hilero Otamotz aldizkaria jasoko duzu zure etxean.
- Zure ekarpenarekin proiektu hauek bultzatuko dituzu: Otamotz, Otamotz.com, Goierriko Hitza, eskualdeko telebista, Kafe Antzokia, Mintzalaguna, Bertso Eskola, Kantu Afaria, Liburu-lanketa, Gazte Lokala, Aisialdia Euskaraz, Normalizazio Plana, hizkuntza eskubideak, sentsibilizazioa...
- Urtean 25 euro.

OTAMOTZ ALDIZKARIKO HARPIDETZA:

- Hilero Otamotz aldizkaria jasoko duzu zure etxean.
- Urtean 12 euro.

- Ekarri edo bidali postaz zure datuak honako helbidera:
Zintzo-Mintzo elkarte
Labeaga 12, behea (Goierri elkartearen ondoan)
20700 Urretxu
- Posta elektronikoa erabiltzea nahiago baduzu:
zm@euskalnet.net

<input type="checkbox"/>	ZINTZO-MINTZOKO BAZKIDE EGIN NAHI DUT
<input type="checkbox"/>	OTAMOTZ HARPIDETZA ORDAINDU NAHI DUT
IZEN-DEITURAK	
JAIOTZE DATA	
HELBIDEA	
TELEFONO ZENBAKIA ETA E-MAILA	
EHNA EDO NA	
KONTU KORRONTE ZENBAKIA	



Mark Haddon

Txakurrari gauean gertatutako istripi bitxia

Christopher autista da, 15 urteko nerabe bat. Oroimen fotografikoa du, badaki zein diren munduko herrialde guztietako hiriburuak, eta gai da 7.507 bitarteko zenbaki lehenak barra-barra botatzeko. Unibertsoa zer den badaki, baina gainerako pertsonak eta haien jokabideak ez ditu ulertzen. Hobeto moldatzen da txakurrekin, haiek ez dute gezurrik esaten eta. Egun batean, Shears anderearen txakurra hilda agertuko

da. Orduan hasiko da Christopher ikerketa lanetan eta hilketa-eleberri bat idatziko du. Bere ikerketen bitartez kolokan jarriko ditu inguruko pertsonen pentsamoldea eta jokabide "normalak". Mark Haddon marrazkilaria, poeta eta idazkuntza irakaslea da. Bere lehenengo eleberri hau 35 hizkuntzataraz itzuli dute, euskara tarteko. Lan hori Xabier Olarrak egin du, maisuki gainera.

Xabier Lasa

Shellac

Erritmo errepikakor eta trinkoak. Ia-ia tribalak. Gitarra riff motz eta idorrak. Melodia apurtuak. Edo melodia eza. Ohiko pop eta rock abestien moldeetatik urrunduz, berezko nortasuna eta zirrara primitiboa eragiteko ahalmena du Shellac taldeak. Steve Albini (gitarra), Bob Weston (baxua) eta Todd Trainerrek (bateria) osatzen duen hirukoteak Chicagon (AEB) du jatorria. Grabaketa digitalari muzin egiten diote, eta soinu ana-

logikoaren alde daude. Albini eta Weston soinu ingeniariak dira eta nabaria da soinuari ematen dioten garrantzia. Rock alternatiboa deituaren soinuan pisu nabarmena du Steve Albini; ez da izan alferrik, Nirvana, Pixies, PJ Harvey, Emperor eta beste hamaika talderen soinu teknikaria. Kultuzko taldea da Shellac. Maiatzaren 16an Bilboko Kafe Antzokian izango da. Luxu bat.

Gorka Erostarbe




Davis Guggenheim

Una verdad incómoda

Hainbat zientzialariren ikerketek egia badiote, 10 urteko epe laburra dugu katastrofe latz bat ekiditeko. Katastrofe klimatiko horrek uholdeak, temperatura ezohikoak, lehorreak, gaixotasunak, izurriteak, poloen urtea... eragingo lituzke. Guk gure bizi joerekin bultzatutako ezberria da. Hau da *Una verdad incómoda* dokumentalak kontatzen duena. Bere helburua planetaren beroketaren inguru-

ko informazioa okerra agerian uztea eta arazoari aurre egiteko tresnak ezagutaraztea da. Filmaren oinarria Al Gorek Estatu Batuetako presidenteorde-ohiak bere herrialdean zehar egindako hitzaldi kanpainan dago. Filma uste daitekeen baino apolitikoagoa da. Ostiral honetan eskainiko da, 22.15ean hasita, Zelai-Arizti aretoan.

ButaK 21 zineklub taldea



Alberto Mazmela: Urretxuko erloju-konpontzailea

Gernikako Arbola plazako dendan 42 urte lanean eman ondoren, Alberto Mazmela erloju-konpontzailea erretiroa hartzera doa. Bere tailerretik erloju munduaren eta herriaren bilakaera ezagutu ditu. Norbaitek lekukoa hartzea gustatuko litzaioke, baina zaila ikusten du.

Non jaioa zara?

Jauregi kalean jaio nintzen. Lau anaia-arreba gara, ni gazteena naiz, eta guztiok Urretxun jaio ginen. Urretxuar peto-petotak gara, baina aita Gasteizkoa zen eta ama Elorrikoa. Lan kontuengatik etorri ziren hona.

Zer ikasketa egin zenituen?

Bertakoak, Don Mateorenak. Ospetsua zen gogorra baitzen. Zenbat makila hautsi ote zituen gure gainean, madarikatuak! Dena den, ez nintzen ni egur gehien jasotzen nuena.

Zertan jardun zinen eskolatik irten ondoren?

Familiaren lagun batzuek Azkoitian erloju-denda zuten eta hara joan nintzen lanera, ofizioa ikastera. Gurasoek hori proposatu zidaten eta ondo iruditu zitzaidan, besterik gabe. Azkoitiara joan nintzenean 14 urte bete gabea nintzen oraindik eta soldadutzara joateko garaia heldu arte izan nintzen bertan.

Alberto Mazmela, bere dendako tailerrean.



Erloju-konpontzailearena ondo ikusitako lanbidea al zen?

Garai hartan ofizio batean aritzea banku batean lan egitea baino hobeto ikusia zegoen. Aukeran, nahiago genuen lantegietara joan. Mundu guztia tornularia, fre-satzailea, elektrikaria... zen: mekanikarekin zerikusia zuten lanbideek zuten arrakasta gehien.

Zer egin zenuen soldadutzatik itzuli zinenen?

Neure kabuz hasi nintzen, hemen bertan. Hori zen nire asmoa. Herri erdian lokal bila hasi nintzen eta hau topatu nuen. Hasieran alokatu egin nuen eta duela 18 bat urte erosi egin genuen. 1964ko Santa Lutzi egunean ireki nuen negozioa. Igandea zen, baina garai hartan Santa Lutzi eguna oso garrantzitsua zen merkatarientzat. Izan ere, jendeak erosketak egun horretan egiteko ohitura zuen eta diru zorroa gainezka ekartzen zuen. Egun, ordea, txartelak direla eta, edozein egunetan egin ditzakegu erosketak.

Erloju-denda asko al zeuden?

Bi zeuden, Zumarragan: Imaz, gero Beasaina joango zena, eta Apaolaza. Ni hasi eta urtebetera-edo, beste bat ireki zuten: Ormazabal. Urretxun negozio gutxi daramate gureak bezainbeste urte: estanko pare batek, Mendizabalena harategiak, Lopezek eta Garciak.

Nolakoa zen erloju-konpontzaile lana?

Asko lan egin behar zen. Dena konpontzen zen. Piezak egin, torneatu eta soldatu behar ziren. Inork ez zuen erloju bat baino gehiago eta hori konpondu egin behar zen. Iratzargailuek ere lan itzela ematen zuten. Lan asko egiten zen eta gutxi kobratu, baina garai hartan lanbide guztietako kontua zen hori. Egunean ordu

asko sartzen nituen. Leuntzeko makinarekin jo eta ke aritzen nintzen, behatzak gogortu eta ez sentitzeraino.

Konpontzailea zinen, beraz, saltzailea baino gehiago.

Saldu ere egiten zen, baina orain baino askoz ere gutxiago. Egun, mundu guztiak bost erloju ditu eta ez da ezer konpontzen. Egitekotan, piezak aldatzen dira. Erloju mekanikotik kuartzokora sekulako aldea egon da. Erloju handiak, berriz, mekanikak dira eta lana ematen dute oraindik.

“Oso lagun gutxi gara jada halako lanak egiteko gai garenak eta prestigio apur bat izango dudala suposatzen dut”

Izan ere, balio handia dute euren jabeentzat. 150 urteko bat berri du duela gutxi: Mored marka frantziarrekoa.

Urretxun ez dira kategoriatan horretako erloju asko egongo...

Inguruotako jendea ere etortzen da: Arrasate, Durango, Elorrio... Oso lagun gutxi gara jada halako lanak egiteko gai garenak eta prestigio apur bat izango dudala suposatzen dut. Dena den, probintzia guztietan dago oraindik erloju mekanikoekin lan egiteko gai den norbait. Reinosako batek, adibidez, nire tornua erosteko asmoa azaldu du. Egungo erloju-konpontzaileek egindako lanaren arabera kobratzen dute. Izan ere, jendeak bere erlojuen balioa ondo ezagutzen du

egun. Duela hamarkada batzuk benetako espoliazioak izan ziren baserrietan.

Zuk zeuk, ba al duzu bereziki maite duzun erlojuren bat?

Nire erloju kuttunena 60 urte baino gehiago dituen Leonidas markako bat da. Mekanikoa izanik, kronometroa eta egutegia ditu. Hura konpontzea oso garestia zen eta hemen utzi zuten. Sekulako lana egin behar izan nuen konpontzeko. Egun, ez nintzateke gai izango. Erloju baten balioa kalkulatzeko, antzinasuna hartzen da kontuan batez ere. Baita oraindik ondo dabilen ere, noski.

Zertan aldatu dira erlojuak?

Erabat aldatu dira. Lehen material hoberekin egiten ziren. Oraingo erloju onen xafladura lehengo erdi mailakoena baino okerragoa da. Urrezko xafladurak lehenengoak baino askoz ere finagoak dira.

Bitxiak ere asko aldatu al dira?

Badira urte batzuk jende gazteari urre horia gustatzen ez zaiola: urre zuria edo zilarra nahiago du. Gainera, gazteek dirua beste gauza batzuetan ere gastatzen dute eta aipatutako materialak urre horia baino merkeagoak dira. Garai batean baino diru gutxiago gastatzen da bitxietan. Lehen handikoiak erosten ziren: eskumuturreko, kate eta domina oso handiak. Oraingoak finagoak eta politagoak dira, baina lehenengoak bizitza osorako ziren. Adineko jendeak urre horia atsegin du oraindik.

Lapurretarik ez al duzue izan?

Kontu horrek ez du jendea negozio honetan aritzera animatzen. Lehen ez genuen kutxa gotorrik eta atea zabalik utzi genezakeen. Gainera, pertsiana igota uzten zen, jendeak jeneroa ikus zezan. Pixkanaka, geroz eta neurri gehiago hartu ditugu. Egun, gutako gehienok atea itxita



Alberto Mazmela eta bere emaztea, erloju dendan.

izaten dugu. Dena den, urte hauetan guztietan ez dugu lapurretarik izan.

Zer du ona eta zer gogorra lanbide honek?

Konponketak norberak egiten ditu eta hori oso polita da. Gogorra? Gauzak egitea asko kostatzen dela. Geroz eta gehiago, gainera: ikusmen ona, pultsua, kontzentrazioa eta pazientzia behar dira. Konponketa bat egitea kostatzen bada, tematuz gero, erlojua haustea besterik ez da lortzen. Onena, ohera joatea. Hurrengo egunean, atera egiten da.

Emaztea laguntza handikoa zaizu.

Beregatik ez balitz, ez nuen aurrera egingo. Izan ere, mostradore atzean asko lan egin behar da. Nik tailerrean lan egiten dut eta emaztea arduratzen da bezeroekin

harremana izateaz eta lokala txukun mantentzeaz. Laguntza handikoa da.

50 urte daramatzazu lanbide berean. Horrenbeste denbora ondoren, nola ikusten da erretiroa?

Lan egiteari utzi behar diot eta bizimodu berria hasi behar dut. Pena ematen dit, bezero batzuk lehen egunetik baitatoz nireta eta konfiantza handia baitute nigan. Atzetik datozenek egingo ez dizkieten lanak enkargatzen dizkirate, dirurik ematen ez dutenak. Baina halakoak ere egin behar dira, jendeak merezi baitu. Bezero asko adinekoak dira, eskatzen duten guztia egiten diet eta horretara ohituta daude. Beraien erlojuek ez dute, beharbada, diru asko balio; baina beraientzat balio handikoak dira.

Denda uzteko eperen bat jarri al duzu?

Udako utziko dut. Lokala alokatzeko eskaintzak jaso ditut eta niri bertan erloju denda egotea gustatuko litzaidake, baina oso zaila izango da. Herrian ez ditu inork hemen egiten diren lanak egiten. Gainera, denbora gutxian, tradizio handiko erloju dendak itxi dira. Erlojugintza mekanikoak hiriburuetan soilik du etorkizuna: bezero asko dauden tokietan. Seme-alabak dituztenek eta horiek negozioarekin jarraitzea nahi dutenek, erlojugintza eskoletara bidaltzen dituzte.

Alabak ez ditu zuen pausoak jarraitu...

Ikastea erabaki zuen eta berehala aurkitu zuen lana. Dena den, laguntzera etortzen da. Egia esan, ez zait iruditzen lanbidea hau neska batentzat egokia denik. Indarra behar da zenbait gauza egiteko: kaxak ixteko eta eskumuturreko erlojuak desmuntatzeko, adibidez. Konponketak inongo arazorik gabe egin ditzakete, noski.

Zein da erloju denden etorkizuna?

Salmenta. Erlojuek etorkizun oparoa dute, nahiz eta edozein tokitan saltzen diren. Izan ere, erloju ona nahi duenak, erloju dendara jotzen du. Bertan aholkatu egingo dute eta bermea eskainiko diote. Erloju onak ez dira bazarretan eta *todoacien* dendetan saltzen.

Zure etorkizuna mundu honetatik kanpo dago, zer egin behar duzu?

Ez dakit, baina topatuko dut zereginen bat. Orain arte denbora asko pasatu dut dendan, baina egunero joaten naiz paseatzerara ordu pare batez. Hemendik aurrera ordu egokiagoetan joango naiz. Udan zoratuta nengoela esaten zidaten arratsaldeko hiruretan joaten nintzelako... ordu horretan bakarrik ahal nuen eta! Bidaiatzeko asmoa ere badut.

Benta Zaharreko mutiko alaiak: Musikari ibiltariak

Urte dezente pasatu dira herriko musikari batzuek euren zaletasuna jorratzeko eta jendea kantuan jartzeko Ostebi taldea sortu zutenetik. Giroa alaitzeko aproposena kalejirari ibiltzea dela jabeturik, instrumentuekin alde batetik bestera ibiltzeko formulak bilatzen hasi ziren. Hala, uztaile geroztik karro batekin ikusiko dituzue, Benta Zaharreko mutiko alaiak izena hartuta.

Taldeko kideak, hilaren 14ean Antzuolan eskaini zuten emanaldia hasi aurretik.



Ostebi taldeak, gainontzeko askok bezala, hainbat gorabehera izan ditu azken urteotan. Juanlu Aranburu Patxi Saezekin jotzen hasi zen, Mikel Alustiza Lajarekin eta taldeak geldialdi handi samarra izan zuen. Dena den, urtean lauzpabost emanaldi ematen jarraitu zuten.

Iñigo Peñagarikanok dioenez, arrakasta handiz gainera. "Planak funtzionatzen zuen, baina gogorra zen: askotan, arratsaldeko 5etan hasi eta goizeko 5etan bukatzen genuen. Basati samarra zen eta ez zigun gure jardunaz gozatzen uzten. Lehen orduan oso gustura aritzen ginen, baina hirugarrenetik aurrera...".

Herri txikitan jotzen zuten, batez ere. "Urrestillan, Elgoibarren, Eskoriatzan, Aizarnazabalena, Orion... Tabernaz taberna, bazkalostetan, herri bazkarietan... jotzen genuen. Kanean aritzen ginenez, ia garrasika, eta eztarria izorrratuta, porru eginda, itzultzen ginen etxera eta askotan hurrengo asteburuan jotzeko gogorik gabe. Ondo pasatzen genuen, baina gehiegizkoa zen", azaldu du.

Hori dela eta, aldaketaren bat egitea erabaki zuten: aplikadoreak erabiltzea. "Festetako emanaldi ibiltariak dira onenak, egun horietan jendea parte hartzeko prest egoten baita. Baina horretarako megafonia eramangarria behar da. Ordenadore bafleekin hasi ginen eta horrek asko hobetu zuen gure jarduna. Gero, Elektrotunaren modura aritu ginen, motxila batekin. Dirua gastatzen ari ginen eta, hala ere, ez zen nahikoa. Iaz, adibidez, Antzuolan jo genuen, jendartearen, zara-

ta handiarekin, eta Patxi Saezen ahots polita ez zegoen gozatzerik. Teknikoki motz gelditzen ginen oraindik", aitortzen du Peñagarikanok.

Gauzak hala, taldeko kide batzuk Udako Unibertsitateko sormenari buruzko ikastaro batera joan ziren. "Oso interesgarria izan zen. Ez ginen musika taldea hobetzeko asmoarekin joan bertara, baina han esandakoak gure lanerako oso baliagarriak zirela konturatu ginen. Kulturak teknologiarik esker mantentzen zirela eta teknologiak gauzak erakargarri egiteko balio zuela esan zuten, esaterako. Kultur jarduerari negozio egitura eman behar zitzaizela ere esan zuten, etengabe dirua gastatzea suizidioa zela", oroitzen du Iñigo Peñagarikanok.

"Festetako emanaldi ibiltariak dira onenak, egun horietan jendea parte hartzeko prest egoten baita"

Hori guztia kontuan hartuta, benetako saltoa ematea erabaki zuten. "Tresna hobeak erosi ditugu eta formazio lana ere egin dugu. Inbertsio handia egin dugunez, mailegua eskatu behar izan dugu. Hori dela eta, egun katxeta dugu. Zer pauso eman genuen? Aplikadoreak eramateko karroa prestatu genuen". Hori lortzeak sekulako lana eman die.

"Horrelako zer edo zer egitea erabaki eta berehala dendetara joan ginen galdezka, baina ez zegoen nahi genuena. Ez genuen megafonia eramangarririk topatu. Kablerik gabeko 12 kanaleko sistema nahi genuen, baina ez zegoen. Baionara joan ginen, Interneten begiratu eta ikasi genuen... Lan tekniko sakona egin dugu. Niretzat oso polita izan da. Gero eta argiago dago Internet oso baliagarria dela. Informazioa hor dago, doan eta edonoren esku. Demokrazia ber bi da", dio.

Iruñean eskatu zuten materiala. "Dendakoa txundituta gelditu zen gure eskaerarekin. Inauterietarako zaldi gainean eramateko bi kanaleko ekipoa eskatu ziotela esan ziguten, baina lehen aldia omen zen karroan eramateko moduko 12 kanalekoa eskatzen ziotena. Bere hornitzaileak motz gelditzen ziren eta Internetez bilatu genituen".

Ekipoa lortu zutenean, karroaren bila hasi ziren. "Karro normalek balio ez zutenez, planoak egin genituen eta Aretxabaletako tailer batean egin ziguten. Oso pozik gaude. Iraultza txikia izan da eta erabiltzen ikasten ari gara", dio Iñigo Peñagarikanok.

Barkillo saltzaileen pare, Peñagarikano bera da karroa bultzatzearen arduraduna. "Inauterietan Hernanin jo genuen eta ni zertaz mozorrotuta nengoen galdetzen zion jendeak bata besteari. Ekipoa ez da batere estetikoa, baina ez da hori helburua. Dena den, erakargarriago jartzeko asmoa dugu. Robot egin eta taldeko kide gisa aurkeztu nahi genuke", dio.

Orain, ordea, egindako inbertsioa berreskuratzeko garaia da. "Web orria

prestatu dugu eta kultur etxe guztietara informazioa bidali dugu. Bidali eta berehala lau eskaera jaso genituen, inauterietan jotzeko. Orain berriro bidaliko dugu informazioa, uda begira".

Aurrerago, karroa robot bihurtzeaz gain, Peñagarikanori erreperitorioa zer edo zer berritza gustatuko litzaioke. "Betiko erreperitorioa (Benito, Laboa...) geldo samarra da zenbait egoeratan. Itoiz, Hertzainak, Kortatu... bezalako taldeak sartu beharra dugu. Baina erabiltzen ditugun instrumentuek eta dugun mailak mugatu egiten gaituzte. Moldaketak egiten hastea gustatuko litzaidake, adibidez. Horretan ari gara, baina oso poliki. Azken helburua sorkuntza izango da. Oso urruti dugu, baina baikorra naiz. Uztailetik hona gauza asko egin ditugu".

Egun bost kidek osatzen dute taldea: Iñigo eta Mikel Peñagarikano anaiek, Juanlu Aranburuk, Ibon Garmendiak eta Pako Aristiren bitartez hasi zen Urrestillako Amaia Aranagak. "Patxi Saez, Pako Aristi eta Mikel Alustiza bere aldetik joan ziren, baina urtero elkartzen gara hainbat tokitan jotzeko", dio Peñagarikanok.

Taldearen izena Pako Aristik asmatu zuen. "Aian geundela, gaitak egiten dituen katalan bat etorri zen Pakoren taldea ezagutu nahi zuela esanez. *Pues yo soy Pako Aristi y este es mi grupo Benta Zaharreko mutiko alaiak, que es el nombre de un prostíbulo*, esan zion. Horrekin gelditu ginen. Izenari ez diogu sekula garrantzia handirik eman, nahiz eta baduen. Orain, adibidez, batzuek izen motzagoa jarri beharko genukeela esan digute".



"Erreperitorioa geldo samarra da zenbait egoeratan. Itoiz, Kortatu... bezalako taldeak sartu beharra dugu"

Lehen Ostebi eta orain Benta Zaharreko mutiko alaiak taldearen arrakastak sekretu txiki bat du: kantu afarian bezala, liburu txiki bat eskaintzen diete entzuleei. "Tontakeria da, baina oso garrantzitsua. Deitzen digutenean, zenbait jendek parte hartzea nahi duten galdetzen diegu harro samar. Izan ere, zenbat eta liburu gehiago eraman, orduan eta lagun gehiagok parte hartzen dute. Enpresa moduan pentsatzea komeni dela eta,

azalik gabeko 3.000 liburuxka ditugu inprimatuta. Azala pertsonalizatu egiten dugu: antolatzailearen izena, herria eta eguna jartzeko aukera ematen dugu. Liburuan 100 kanta daude eta batzuetan behin baino gehiagotan jotzen ditugu, beste batzuetan ez ditugu guztiak jotzen...", azaldu du Iñigo Peñagarikanok. Bere esanetan, jendeak abesteko gogo handia du. "Harrigarria da. Euskal Herrian ohitura handia dago, baina azkenaldian mututua egon da".

Dena den, ez dute herrietako festetan edo tabernaz taberna bakarrik jotzen. Hilaren 14an Antzuolako haurrekin karaoke modukoa egin zuten eta ezkontzetan ere jotzen dute, elizan. Urretxu eta Zumarragan ez dute emanaldirik aurreikusi. "Astunak ote garen sentsazioa dugu batzuetan. Santa Isabeletan jotzen dugu, Kantu Afaria hor dago, Euskal Jai egunean ere zer edo zer egiten dugu... nahikoa dela uste dut. Gure emanaldirik onenak kalean ematen ditugunak dira. Horrela ibili garen toki guztietan berriro deitu digute. Gure kalitate instrumentala ez da oso ona, baina eseritako kontzertuak entzuteko aukera handia dago. Jendearen parte hartzea landu dugu eta jendeak oso gustura hartzen du. Oriotarrentzat sekulakoa izan zen Benitoren kantak kalean abestea", oroitzen du.

Udalen aldetik ere harrera ona izan dute. "Gure katxeta ez da batere garestia beraientzat eta liburuxka ere oso merke ateratzen zaie: 100 partaide, 100 euro. Gehiago jotzen ez badugu, denbora faltagatik da".

Txirrindularien paradisuan

Hilaren 8an Flandesko itzulia izan zen, munduan den txirrindulari lasterke-ta garrantzitsuenetakoa. Izan ere, flandestarrek gutxi bezala maite dute kirol hau. Bezperan 25.000 zikloturista elkartu ziren: batzuek ibilbide osoa osatu zuten eta besteek zati bat, giro ezin hobean. Tartean, Aitor Chico, Iñaki Lizarazu, Unai Begiristain, Mikel Hernández eta Jaione Aranburu izan ziren. Chico eta Lizarazu bertako zaletasunaz maiteminduta etorri dira.



Ezkerraldean Aitor Chico proba egunean eta eskuinaldean Iñaki Lizarazu, bezperan, entrenatzen.

Chico eta Lizarazu aspaldi dira txirrindularitza zaleak. Hala, azkeneko urteetan txirrindularitza zaleentzat antolatzen diren hainbat probatan parte hartu dute: Quebrantahuesos, Bonaigua, Larra-Larrau... Horietarako prestatzeko inguruko irteeretan parte hartzen dute eta, hala, Ormaiztegiko bi lagun ezagutu zituzten. Hauek izan ziren Flandesko itzulia egiteko tentatu zituztenak eta eurekin eta emazteekin izan dira bertan. "Elkarrekin egingo

genuela esan genuen txantxetan eta, azkenean, animatu egin ginen. Aurtengo ekitaldia Aste Santuan izan denez, familiarekin joateko aukera genuela ikusi genuen eta etxeokoa konbentzitzea lortu genuen. Emazteek ez digute eragozpen handirik jarri, baina amek bai", diote.

Chicok, gainera, mokor arazoak ditu. "Medikuak desgastea handitzen ari naizela eta kilometro asko egitea ez zaidala komeni esan zidan. Zer asmo nuen azal-

du nioenean, ez zuela horretaz ezer jakin nahi esan zuen. Honen ondoren, lasaiago ibiliko naiz. Osasunaz gain, tailerreko lana eta familia ere kontuan hartu behar dira". Belgikako probak ia 260 kilometroko ibilbidea du, kilometro asko harlandu gainean egin behar dira eta muino gogorak ere baditu. Hara joateko, irailetik hona sekulako prestaketa osatu dute. Egindako kilometroen kontua galdu dute. "Ez dakit seguru zenbat egin ditudan, bidegorrian

eta arrabola gainean asko ibili bainaiz. 8.000 kilometro luze egin ditudala, seguru", dio Chicok. Lizarazuk gehiago egin dituela uste du: urte hasieratik hona bakarrik 4.500 pilatu ditu.

Ez da erraza negu partean horrenbeste kilometro egitea. Chicok astegunetan ez du egun argiz ibiltzerik izan. Hala, afaldu, emaztea eta umeak etxean utzi eta bidegorrira irten da gau askotan. Gauetz paseatzen duten emakumeen laguna da dagoeneko. "Batek baino gehiagok esan dit ikusi nauela eta guztion ahotan ibili garela uste dut", dio.

Lizarazuk, berriz, egun batzuetan goizeko 6etan irten dela dio. "Egoskorra izan behar da hau egiteko. Izan ere, lanetik irten ondoren, etxeko epeltasunean zaudela, oso gogorra da bizikleta hartzea", aitortu du Chicok.

Dena den, ahaleginak merezi duela diote. "Belgikako txirrindularitza zaletasuna sekulakoa da eta ezagutu egin nahi genuen. Asmatu egin dugu eta emazteak ere oso gustura izan dira. Bizikletarekin duten harremana ikusgarria da. Jende guztia bizikletan ibiltzen da: 15 urteko mutikoa, 60 urteko gizona, gorbataduna, gonadun eta takoidun emakumea... Hemen kirola egiteko arropa behar dela dirudi. Parrandan ere bizikletan joaten ziren toki batetik bestera. Brujaseko plaza guztietan aparkatzeko tokiak daude eta autoak apenas ikusten dira. Gainera, bizikletek lehentasuna zuten eta kilometroak eta kilometroak bidegorri daude", diote Chicok eta Lizarazuk.

Bizikleta hemen baino askoz ere jende gehiagok erabiltzen duen arren, baita erabilpen gehiagotarako ere, ez omen diote tramankuluari berari horrenbeste garrantzi

ematen. "Hemengo jendea bakarrik ikusi genuen karbonozko txirrinduarekin. Modan joatea atsegin dugu", azaldu dute. Ez zuten belgikarrek eta euskaldunek bakarrik parte hartu, noski. "Frantsesak, italiarrak, alemanak, espainiarrak... aurkitu genituen. Dena den, italiarrak eta gu bakarrik ibiltzen gara modu lehiakorrean. Belgikarrek lasaiago ibiltzen dira".

Hala ere, 260 kilometroko ibilbidea osatzea ez da broma. Are gehiago, 18 muino labor baina gogor igo behar badira. "Jateko ere asti gutxi genuen: bata jaiste-

"Mundu guztia bizikletan

ibiltzen da: 15 urteko

mutikoa, 60 urteko

gizona, gorbataduna,

gonadun emakumea..."

rako bestea igotzen hasten ginen".

Harlandua ere gauza berria zen beraientzat. "Gipuzkoako harlanduzko bide guztietan ibili ginen joan aurretik: Azkoitian, Eskoriatzan, Beasainen... Dena den, hemengoak broma dira hangoen parean. A zer nolako dardarizoa! Hasieran manillarra goitik eta gogor heltzen genuen. Albokoek, berriz, albotik eta leun heltzen zuten eta ipurdia apur bat altxatuta ermaten zuten. Gainera, plater handia jarri behar da. Zenbat eta gogorrago heldu manillarra, orduan eta min handiagoa nabaritzen da eskuetan", diote.


Zerbait ikasi zutela eta txukun samar ari zirela uste zutenean, Quick Step talde belgikarreko profesional batek pasatu zituen

ziztu bizian. Biharamunean, igandean, berriro ikusi zuten, profesionalen lasterketan. "Sekulakoa izan zen: dena jendez gainezka zegoen txirrindulariak heldu baino ordu eta erdi lehenago. Irteera ere tope zegoen. Tom Boonen heldu zenean zoramena izan zen. Txirrindulari hau hemen Beckham bezain garrantzitsua da Belgikan. Iragarkietan bera ageri da, ez futbolariak", diote.

Hala, larunbatean eta igandean festa giroa nagusi zen ibilbide osoan. "Ibilbideko etxeetan jana eta edana salgai zuten guretzat eta laguntza ematen zioten arazoren bat zuenari. Lasterketa egunean, berriz, baserrietan tabernak jartzen zituzten eta jendea euren txirrindulari gutukoenen argazkiekin eta arroparekin joaten zen animatzera".

Lasterketa berezia da zinez. "Euskaltel taldeko mekanikaria den Jose Kruz Mujikak klasikoen artean klasikoena dela esan zigun eta hala da. Belgikarrentzat ez dago lasterketa garrantzitsuagorik. Hau irabazten duena Jainkoa da eurentzat".

Gustura itzuliko liriateke. Oraingoan, sasoi ona Quebrantahuesos famatua egiteko baliatuko dute. Gero, gerokoak. "Udaberriko beste klasikoren bat egitea gustatuko litzaidake, Amstel Gold Race adibidez. Zikloturisten Paris-Roubaix bi urtetan behin egiten da eta hori ere oso polita eta gogorra omen da", dio Lizarazuk. Aitor Chicok, berriz, argi du ez duela halakorik egingo. "Ikustera, beharbada, joango naiz. Egitera ez, prestatzeko denbora asko behar baita eta familia ere hor baitago. Dena den, emazteek ere zaletasuna dute. Urtero joaten dira Quebrantahuesos ikustera eta giroa asko atsegin dute".



Alex Areizaga

Informatika

Programak kentzeko

Jendeak normalean programa edo joku bat desinstalatu edo kendu nahi badu, programa hartu eta zakarrontzira botatzen du. Modu honetan ez dugu ezer ere ez desinstalatzeko, zati bat kendu besterik ez dugu egiten. Horrela, litekeena da ordenagailuak ondoren era egokian ezabatzea galaraztea, berriro instalatu nahi badugu arazoak ematea eta ziurrenik programaren hondarrak ordenagailuan galduta utziko ditugu. Ondo ezabatzeko, *Panel de control*-era joan behar dugu eta bertan *Agregar o quitar programas* sakatu. Ondoren, zerrendatik ezabatu nahi duguna hautatu eta ezabatzeko botoia saketzea besterik ez da. Honela, programak ez du zaborrik utziko gure ordenagailuan barreiatuta.



Miren Arrieta

Osasuna

Udaberriko alergiak

Alergia substantzia zehatz batekiko hipersentsibilitatea da. Ikutu, irentsi edo inhalatzean sintoma berezi batzuk sortzen direnean, alergia dela esaten dugu. Alergeno bat organismoan barneratzen denean, honek IgE deituriko antigorpu batzuk sortzen ditu. Espozizioa iraunkorra denean beste sustantzia kimiko batzuen artean histamina ere askatzen da, erreakzio alergikoaren sintoma tipikoenak sortzen dituen. Ugari dira alergia sortzen duten sustantziak, polena, akaroak, elikagaiak, etxeko animaliak... Hauek dira sintoma garrantzitsuenak: conjuntibiti alergikoa, rinitisa (muki-ura, doministikuak...), urtikaria, dermatitisa eta asma. Hauek guztiak ekiditeko alergia ematen duen sustantziarekin ahalik eta kontaktu gutxien izaten saiatu behar da. Bestalde tratamendu ugari daude, baina antihistaminikoak arazoaren sorreran dute beren ekintza eta sintoma guztiak kontrolatzeko egokiak dira. Kontrako efektu gutxi dituzte eta berriek iada ez dute logalerik ematen. Ez da beharrezkoa alergenoa zein den jakitea tratamendu hau erabiltzeko, baina komenigarria da medikuarekin kontsultatzea.

Minutu bakarreko egunak

Ekartzen dituen musu gorriengatik jakiten dut lasterketa noiz irabazi duen. Haizeak aterkia orraztuko zion gaur eta inoiz baino beranduago etorriko dela dirudi. Laino grisak eta euri-malkoak ez dira zentzu metaforikoan soilik eroriko bere masailetan behera. Gaur ere, treneko atea baino zabalago irekiko zaizkit begiak barrura begiratzen duenean parean ikusteko. Egunaren bukaeran hamar minutu baino gehiago behar izaten ditu unibertsitateak geltokira, astearen bukaeran, ia hamabost minutu eta barne eta kanpo ekaitzak bateratu bazaizkio ordu laurdena gaur. Jakin behar luke, eta lehentxeago irten.

Baina ez du egin.

Bere lagunak hemen dira. Lau neska eta bi mutil. Hiru beltzaran eta hiru ilehori. Lau ile motz eta bi ile luzedun. Bost motxilarekin eta bakarra poltsarekin. Bi betaurrekoekin eta hiru gabe, eta lentilak eta betaurrekoak tartekatzen dituen beste bat. Trena agurtzen azkenak beti. Geltokian sartzen den lehen bagoiko azken sei eserlekuak euren izenak dituzte. Gaur, hiru neska eta bi mutil daude. Bi beltzaran eta hiru ilehori. Lau ile motz eta ile luzedun bat. Lau motxilarekin eta bakarra poltsarekin. Betaurrekodun bat eta lau gabe. Ostirala nabari zaie aurpegiak eta gorputzak eramateko moduan. Pozik eta nekatuta daude. Bera, eta gero galtzeko bilatzen dudana begirada hori falta da.

Ez dago.

Korrika etorriko da. Imajina dezaket liburutegitik unibertsitateko irteerara dauden hogeita bat eskailerak igotzen. Laurogeita hamar graduako biraketa bat eta hirurogei graduako beste bat egin behar izan ditu. Ezkerretan izkina itsu bat geratuko zitzaion, susto txikiak, ertainak eta handiak eman eta jasotzeko territorio librea.

Ez zuen ikusiko. Eta ez du ikusi nahiko.

Besteren ezinikusietarako prestatzen ditugu begiak. Edozein lekutara joan aurretik itinerarioak planifikatzen tre-



batzen gara. Bide guztiek Erromara badaramate ez dago zertan beti bera hartu beharrik. Jarraipenak egiteko metodoak ikasten ditugu; besteren itzal izaten arrastorik utzi gabe. Eta zortzi ordu egunean, gutxienez, horrela pasatu ondoren... Parean pasatzen den jendeari ezin agur egiteko begiratu, asmoak irakurtzeko baizik. Eta normalean intenzioak gutxitan dira onak. Nahiz eta nireak onenak diren. Parera datorrenean asmo onenaz irekiko zaizkit begiak. Irakurtzen badaki, irribarre egingo dit. Lasterketak merezi izan duela pentsatuko du. Ni zain izango nau.

Ez dut eskerrak ematerik nahi. Badakit ez dizkidala emango.

Nire begiekin jotzerako, unibertsitateko kafetegi aurrean bakerodun irakaslea, betaurrekodun idazkaria, trajedun bedela eta denetik duten ikasleak agurtu behar izango ditu. Ostiral hartan bezala. Bakerodunak Lolita konkistatu berri bat ikusiko du, betaurrekodunak inbidiaren pertsonifikazioa eta ikasleek apunteak eskatu ahalko dizkioten lagun hori. Berak, trenak ihes egin diezaiokeela mugitzen ez bada.

Amaia Artolazabal

www.otamotz.com web orrian ipuina osorik irakur dezakezue, *Aldizkaria* saileko *Ipuinak* atalean.

Txema Iriberrri

Apirilean Eire-Bankoa xake txapelketako finala jokatu da eta Jesus Mari Rodríguez zaldibitarak irabazi du. Txema Iriberrrik bere tabernako txapelketa Gipuzkoa osoan ezagun egitea lortu du. Oso gaztetan zaletu zen eta jokatzeaz gain, joko honen inguruko zigiluen bilduma du eta xakeari buruzko ipuinak idatzi ditu. Hauetako batekin Zumarragako lehen literatur lehiaketan saria lortu zuen. 15 urtetan tren geltokiko taberna eraman zuen bere anaiarekin eta bertan bezeroekin partidak jokatzeko zituen. 1999an Eire taberna ireki zuen. Bertan mus txapelketa ere antolatzen du.

Zer izan nahi zenuen umetan?

Postaria. Inork gutunak postontzietan sartzegatik ordaintzea sinestezina iruditzen zitzaidan.

Aisialdian zer egitea atsegin duzu?

Zinea, idaztea, irakurtzea eta lagunekin tertulian egotea.

Bizitzeko toki bat?

Urretxu bera. Abaigar ere atsegin dut, aitaren herria.

Xakean jokatzeko, tila ala kafea?

Batzuek kitzikatzeko beharra izaten dute eta besteek lasaitzeko beharra.

Nori egingo zenioke xake mate?

Eztabaidatzen ez dutenei. Postura itxiak dituztenei.

Zer behar du tabernari on batek?

Pazientzia. Bezeroei arrazoia eman behar zaie beti, nahiz eta batzuetan ez duten.

Zer egiten duzu gogaikarri jartzen diren bezeroekin?

Arrazoia eman, hain zuzen ere.

Ordago zalea al zara?

Musean bai, bizitzan baino errazagoa baita.

Ilehoriak ala beltzaranak?

Denak.

Egindako azken oparia?

Emazteari oparitu nion erlojua.

Eta jasotakoa?

Liburuak. Askok irakurtzen dut. Oporretan izan berri naiz eta lauzpabost irakurri ditut. Ez dut hondartza zapaldu.

Data bat?



Hil bakoitzeko 17a berezia da niretzat, familiako zenbait kide hil baitira egun horretan. Sineskeria izango da, baina...

Neska eta mutil izen bana?

Unai eta Naroa, nire seme-alabenak.

Zein egunkari irakurtzen duzu?

Hitza eta DV. Gara eta Noticias de Gipuzkoa ere bai batzuetan. Bestalde, El País egunkariaren literatura atalak gustokoa ditut.

Gustuko telebista saioa?

Los Soprano telesaila eta dokumentalak.

Bereziki gorroto duzuna?

Tele5 kateko guztiak. *Gran Hermano* eta antzerakoak.

Liburu bat?

Denetik irakurtzen dut, baina nobela poliziakoa atsegin dut gehien.

Abesti bat?

Noches de blanco satén.

Filma bat?

Nouvelle Vague mugimenduko edozein: Truffaut, Chabrol...

Soinu bat?

Soinu monotonoak asko atsegin ditut. Hori dela eta, Pink Floyd taldea asko gustatzen zait.

Usain bat?

Itsasoarena.

Janari bat?

Bixigua, eta Getarian bada, hobe.

Ura ala...

Ardoa eta Huts tabernako garagardoa.

Urretxu-Zumarraga Ikastola

Garaialde Lizeoa

Milurte berriko hezkuntza eta hornidura



BATXILERGOA - BATXILERGO FORMATIBOA - D EREDUA

Natur eta Osasun Zientziak - Giza eta Gizarte Zientziak


Lau ibilbide: Zientifiko-Teknikoa, Osasun Zientziak, Gizarte Zientziak eta Giza Zientziak
Zereginen Ikasketa Gela (ZIG)



AURREMATRIKULA: apirilaren 23tik maiatzaren 4ra

MATRIKULA: ekainaren 29tik uztailaren 6ra

Labeaga kalea, 25 - Urretxu - ☎ 943 72 21 12



Joxe Mari Iparragirre

BIGARREN HEZKUNTZAKO INSTITUTUA

Santa Barbara bidea z/g. - Telefonoa/fax: 943 72 14 03 - 943 72 14 13
jmiparragirre@edunet.es - www.iparragirre.net - 20700 - URRETXU (Gipuzkoa)

2007-2008 ikasturterako eskaintza

Unibertsitate eta lan mundura bideratutako eskaintza zabala



OSASUN ETA NATUR ZIENTZIEN BATXILERGOA

GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK BATXILERGOA

Izen-ematea:

Apirilaren 23tik maiatzaren 4ra.

Matrikula:

Ekainaren 29tik uztailaren 6ra.


**ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA
ERIZAIN LAGUNTZAILEA
A eta D ereduak**

Izen-ematea:

Ekainaren 1etik 7ra.

Matrikula:

Ekainaren 29tik uztailaren 6ra.



Titulazioa: Erizaintzako laguntzaile-teknikaria

Iraupena: 1.400 ordu (ikasturte bat eta erdi), lantegietan egiten den prestakuntza barne (400 ordu)

Lanbide aukerak: Ospitaleko erizain laguntzailea, lehen artapenetako laguntzailea, kontsulta pribatuetan, zaharren egoitzetan, hortz-kliniketan laguntzailea, gaixoen zaintza.

Zure etorkizuna orain egingo duzun aukeraren eta ahaleginaren baitan dago